

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKAZARITZA SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 254/2022 Erabakia, apirilaren 26koa. Onestea nekazaritzaren eta abeltzaintzaren jasangarritasuna eta lehiakortasuna bultzatzeko planaren barruan inbertsio proiektuak gauzatzeko laguntzak emateko deialdia, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, EBren Next Generation EU funtsen bidez finantzatua**

COVID-19a agertzeak osasun, ekonomia eta gizarte arloko krisia ekarri du mundu mailan, aurrekaririk gabekoa. Horren ondorioz, munduko ekonomian aldaketa nabarmena gertatu da, eta mundu gehienean atzeraldi handia ere ekarri du.

Pandemiak Europan eragindako ekonomia eta gizarte kalteak ahalik eta gehien arintzeko xedez, Europako Batzordeak, Europako Parlamentuak eta Europako Kontseiluak suspertze plan bat ezartzea erabaki dute. Helburua krisitik ateratzen laguntzea da, eta horretarako, dirulaguntza pakete batez baliatu dira.

«Next Generation» berreskuratze funts berriak biltzen ditu finantza baliabide gehienak, eta bere elementu nagusia «Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa» da. Horri esker lortuko ditu, hain zuzen, Arabak, finantza baliabideak, itzuli behar ez diren laguntza gisa.

Espainiako Erresumak Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana aurkeztu zuen 2021eko apirilaren 30ean, eta horrek, 2021-2023 urteetarako inbertsio eta berrikuntzak ezartzen ditu. Europako Batzordeak planaren aldeko txostena egin zuen 2021eko ekainaren 16an, eta 2021eko uztailaren 13an behin betiko onetsi zuen Europako Kontseiluak, gauzatzeko erabakia- ren bidez.

Azaroaren 2ko 948/2021 Errege Dekretua, Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, nekazaritzaren eta abeltzaintzaren iraunkortasuna eta lehiakortasuna bultzatzeko planaren (III) barruan inbertsio proiektuak gauzatzeko estatu laguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dituen, zehazki, Planaren 3. osagaiaren 4. inbertsioaren baitan dago (hau da, C3. 14aren barruan):

«Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren iraunkortasuna eta lehiakortasuna bultzatzeko plana (III): Inbertsioak doitasun nekazaritzan, eraginkortasun energetikoan eta ekonomia zirkularrean, nekazaritza eta abeltzaintza sektorean».

Plan horren elementu nagusia lau laguntza programak osatzen dute. Programa horiek, proiektu estrategikoak gauzatzeko inbertsio planak finantzatzeko dira, besteak beste, abeltzaintzako simaurrak kudeatzeko sistema berriak abian jartzeko; barazkiak, moztutako loreak eta landare apaingarriak ekoizteko negutegiak osorik eraldatzeko eta modernizatzeko, eraginkortasun energetikoa hobetzeko eta hornidura sistemak erabil eta gara daitezen bultzatzeko, energia berriztagarriak erabiliz nekazaritza eta abeltzaintza ustategietan.

Dekretu horrek, 948/2021 Errege Dekretuaren, Espainiako Konstituzioaren 149.1.13. artikulua- ren babespean ezarritakoaren, foru ordenamendua ordezkutzen du. Artikulu horrek, eskumen eskusiboa ematen dio Estatuari bai oinarrien, bai ekonomia jardueraren plangintza orokorraren koordinazioaren, arloan.

Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 37.3 a) artikuluan xedatutakoaren arabera, Arabako Lurralde Historikoko foru organoek eskumen eskusiboa dute beren erakunde- antolaketan, araubidean eta funtzionamenduan.

Bestalde, azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, zeina baita Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen eta lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanetarako, 7. artikuluan lurralde historikoei aitortzen die erakunde erkideek nekazaritza erreformatzeko eta garatzeko, nekazaritza sustatzeko eta sektoreko langileak gaitzeko eta animalien produkzio eta osasunerako emandako arauak garatzeko eta betearazteko eskumena.

Azkenik, Arabako Foru Aldundiaren 2022rako gastuen aurrekontuan bada partida bat, 40101. G/414400/77000422 "NGEU Nekazaritza eta Abeltzaintza" izeneko, 1.024.920,00 eurokoa 2023 urtekoan, laguntza lerro horiek izapidetzeko. Hortaz, urte horretako deialdia onetsi beharra dago.

Aginduzko txostenak ikusi dira, eta Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Nekazaritza Sailaren lehia askeko erregimeneko dirulaguntzak emateko 2021-2022 urteetarako deialdia onestea, guztiz finantziatuta Espainako Estatuak. Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan. EBk finantziatuta. Next Generation EB. Hona xehetasunak:

1. Laguntza motak eta diruz lagundu daitezkeen inbertsioak:

- Abeltzaintzako simaurrak kudeatzeko sistemetan inbertsioak egiteko laguntza programa.
- Berotegien eraldaketa integralari eta modernizazioari laguntzeko programa.
- Efizientzia energetikoko eta energia berriztagarrietako inbertsioei laguntzeko programa (biogasa eta nekazaritzako biomasa).
- Nekazaritza eta abeltzaintza sektorean doitasunezko nekazaritza eta 4.0 teknologiak aplikatzeko laguntza programa.

Hori guztia, azaroaren 2ko 948/2021 Errege Dekretuan ezarritako oinarri arautzaileekin bat etorritik. Errege Dekretu horren bidez, nekazaritzaren eta abeltzaintzaren iraunkortasuna eta lehiakortasuna bultzatzeko planaren (III) barruan inbertsio proiektuak gauzatzeko estatu laguntzak emateko oinarri arautzaileak ezarri ziren.

2. Eskaera bakoitzerako lehentasun irizpide orokorrak:

Oinarrietan ezarritako irizpide orokorrez gain, eskaerak lehenesteko beste bi irizpide gehitu dira:

Eskatzaile motaren arabera:

- Eskatzaileak nagusiki nekazaria izateko baldintza betetzen du: 4 puntu.

Pertsona juridikoen kasuan, lehentasun hori betetzen dutela ulertuko da bazkideen ehuneko 50ek gutxienez baldintza hori betetzen dutenean eta kapitalean edo banaketa kuotan nagusiki nekazari direnen esku dagoen partaidetzaren ehuneko gutxienez ehuneko 50ekoa denean.

- Eskatzailea emakume nekazaria da: puntu 1.

Pertsona juridikoen kasuan, lehentasun hori betetzen dutela ulertuko da kapitalean edo banaketa kuotan emakumeen esku dagoen partaidetzaren ehuneko gutxienez ehuneko 50 denean, elkartutako pertsona fisikoak bi badira, edo ehuneko 40 denean, elkartutako pertsona fisikoak hiru edo gehiago direnean.

3. Eskaera bakoitzerako lehentasun irizpide espezifikokoak:

Ez da lehenespen irizpide espezifikorik ezartzen programa bakar baterako ere.

4. Dirulaguntzaren ehuneko eta laguntzaren gehieneko zenbatekoa programa bakoitzerako:

Dirulaguntzaren ehuneko hau ezartzen da programa bakoitzerako:

4.1. Abeltzaintzako simaurrak kudeatzeko sistemetan inbertsioak egiteko laguntza programa.

Laguntzaren gehieneko zenbatekoa kostu hautagarriaren ehuneko 50 izango da, 8.2. artikuluan jasotzen diren onuradunen kasuan izan ezik. Kasu horretan, gehieneko muga ehuneko 25 izango da.

Ehuneko 50eko ehuneko hori ehuneko 20 puntu igoko da inbertsio kolektiboen kasuan.

4.2. Berotegien eraldaketa integralari eta modernizazioari laguntzeko programa.

Inbertsio hautagarri bakoitzerako laguntzen ehunekoa hauxe izango da:

a) Ekoizteko diren inbertsioetarako: kostu hautagarriaren ehuneko 40.

b) Ekoizteko ez diren inbertsioetarako: kostu hautagarriaren ehuneko 40.

Ez da gehikuntzarik egongo, laguntzaren onuradun motaren arabera.

4.3. Efizientzia energetikoko eta energia berriztagarrietako inbertsioei laguntzeko programa (biogasa eta nekazaritzako biomasa).

Dirulaguntzaren ehunekoa, diruz lagundu daitezkeen jarduera bakoitzerako, honako hau izango da:

a) 1. jarduketari dagozkion inbertsioetarako: kostu hautagarriaren ehuneko 30.

b) 2. jarduketari dagozkion inbertsioetarako: kostu hautagarriaren ehuneko 45.

4.4. Nekazaritza eta abeltzaintza sektorean doitasunezko nekazaritza eta 4.0 teknologiak aplikatzeko laguntza programa.

Oro har, laguntzaren ehunekoa kostu hautagarriaren ehuneko 25 izango da, traktorea eros- teko izan ezik, kasu horretan ehuneko 20 izango baita.

Presioko makinaren kasuan, onuradun bakoitzeko inbertsio batera mugatuko da, eskabidean markatutako lehentasunaren arabera.

Inbertsio hautagarriak izango dira honekin batera doan II. eranskineko zerrendan agertzen diren software lizentziak, nekazaritzako makinak eta ekipamenduak eskuratzea aurreikusten duten proiektuak. Zerrenda horretan zehazten dira inbertsioa, kasu bakoitzerako adierazitako gutxieneko baldintzak (horietako bat gutxienez bete beharko dute) eta diruz lagundu daitezkeen gehieneko aurrekontua edo kostu hautagarria.

Hiru aurrekontu aurkeztu behar diren kasuetan, kostu hautagarria hiru aurrekontuetatik txikiena izango da, teknikoki edo komertzialki ekarpen hori egitea ezinezkoa denean izan ezik.

5. Laguntzaren ordainketa partzialak:

Ordainketa batzuk ziurtagiri partzialen gainean egin ahal izango dira. Horretarako, beharrezkoa izango da egindako obraren bolumena egztatzen duen ziurtagiri tekniko izatea, eta obra bolumen horri dagokion faktura aurkeztea, bai eta faktura hori hurrengo apartatuetan adierazitako moduan ordaindu izanaren egiaztagiria ere.

6. Eskaerak aurkezteko epea eta lekua:

Eskabideak aurkezteko epea: hogeita bost egun baliodun, erabaki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatuta; hori guztia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritakoa alde batera utzi gabe. Epearen azken eguna baliogabea bada, hurrengo egun baliodunean amaituko da.

Eskaerak aurkezteko lekua:

Eskaerak elektronikoki aurkeztu behar dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoren bitartez (<https://egoitza.araba.eus/-/tr-registro-electronico-comun>), edo beste administrazio publiko batzuen erregistro elektronikotan.

Egoitza elektronikoren zerbitzuak erabiltzeko, nahitaezkoa da modu telematikoan identifikatzea, ziurtagiri digital baten edo BAKO sistemaren bidez, hemen: <https://egoitza.araba.eus/es/sede-electronica/conoce-la-sede/como-accedo>.

Eskakerak eskatzailearen ordezkari batek ere aurkeztu ahal izango ditu, baldin eta aurrez iza-pide hori gauzatzeko beharrezko baimen maila ezarri bada egoitza elektronikoa: <https://web.araba.eus/es/sede-electronica/autorizaciones>.

Eskabideak inprimaki normalizatuan aurkeztuko dira eta I, II, III, IV, V eta VI. eranskinetan adierazitako dokumentazioarekin batera aurkeztu beharko dira. Eranskin horietan lehena dokumentazio orokorrari buruzkoa izango da, eta gainerakoa laguntza programa bakoitzari buruzkoa.

7. Kreditu erreserba: 1.024.920,00 euroko kreditua 2023 urtekoan, Arabako Foru Aldundiaren 2022rako gastuen aurrekontuko 40101. G/414400/7700422 "NGEU Nekazaritza eta Abeltzaintza" izeneko partidaren kontura honela banatuta (Zorpekin erreferentzia 22.3.23.105.46/000):

a) Abeltzaintzako simaurrak kudeatzeko sistemetan inbertsioak egiteko laguntza programa, 596.822,00 euro.

b) Berotegien eraldaketa integralari eta modernizazioari laguntzeko programa, 70.018,00 euro.

c) Efizientzia energetikoko eta energia berriztagarrietako inbertsioei laguntzeko programa (biogasa eta nekazaritzako biomasa), 48.466,00 euro.

d) Nekazaritza eta abeltzaintza sektorean doitasunezko nekazaritza eta 4.0 teknologiak aplikatzeko laguntza programa, 309.614,00 euro.

Kreditu hori zenbateko gehigarriekin handitu ahal izango da, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 21. artikuluan ezarritako mugen barruan, baita aurrekontu partidaren edozein arrazoiengatik gerta litekeen kreditu gehikuntzaren bidez ere. Zenbateko gehigarri horiek, gehienez ere, hasierako zenbateko erreserbatua adina izango dira.

Bigarrena. Aldatzea Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 27ko 840/2019 Erabakiaren bidez 2020-2022 aldirako onetsi zen Foru Sektore Publikoaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren eranskina (abenduaren 28ko 827/2021 Erabakiaren bidez aldatua), erabaki honen eranskinetan ageri den edukia sartzeko.

Hirugarrena. Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea erabaki hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan

Laugarrena. Deialdi hau azaroaren 2ko 948/2021 Errege Dekretuan ezarritako oinarrien arabera arautuko da.

Bostgarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko apirilaren 26a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Nekazaritza Saileko foru diputatua*

**EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO**

*Nekazaritza zuzendaria*

**M<sup>a</sup> ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE**